

## XV. SINBOLISMO FONETIKOA ETA HOTS-UZTARDURA HITZ ELKARTUEN ITURRI

*Plentzian, 1987-I-30*

*Tomas Uribeetxebarria Maiztegi*

Hasieran eskeini zitzaigun txostenean garbi azaltzen zen onomatopeiak eta errima-bikoteak ez zirela hitz elkartuen sorburu, hitzak sortzen badituzte ere. Eta elkartuen definizio ohietara lotuz gero, hori horrela denik ez du ia inork ukatuko.

Itxuraren aldetik, ordea, nahiz ahoz nahiz idatziz, oso antzerakoak dira batzuk eta besteak, eta ageri duten problematika ere elkarrekin kidegarria da.

Esan daiteke, beraz, eta orokorki hartuta, ongi kokatzen dela errekurso hau hitz elkartuen alorrean, beharbada eranskin bezela sartu behar ko balitz ere, esaterako "Hitz elkartuen parekoak" izenarekin edo, eta horren azpian bi azpisail: "Onomatopeia errepikatuak" eta "Errima-bikoteak"; horrela berdin balioko luke hauentzat ere hitz elkartuei buruz erabakiak.

### **Onomatopeiak**

Ez dut uste hemen onomatopeiari buruzko teoretian murgildu beharrik dugunik, orokorki onar bait daiteke onomatopeia bitarteko irudikatzaileria dela, errealitatearen imitazioa, komunikatzen ari den erreferentearen irudikapena, soinu linguistikoz burutzen den irudikapen eta imitazioa. Errekurso hau, berez, ez da linguistikoa: beste edozein bitartekoren parekoa da, esaterako, keinaden edo beste edozein zarata motaren parekoa. Onomatopeia ahoz eta ahoskatuz egiten da, eta honek lexiko sortuntzan badu eraginik, baina bestela, berdin litzateke "Tarr... egin du" esan, edo zarata hori, ahoskatuz egin ordez, jostailuz edo edozein tramankuluz baliatuz egin. Funtzioa bietan bat da: erreferentea nola edo hala irudikatu.

Hau honela onartuko balitz, ez legoke “hots-errepika” (“pil-pil”, “talan-talan”, “ttapa-ttapa”) eta “ablaut-taldeak” (dinbi-danba”, “firri-farra”) bereizi beharrik. Gauza bera eta tratamendu bera onartzen dute “ttapa-ttapa”k eta “ttipi-ttapa”k; “danba-danba”k eta “dinbi-danba”k; “farra-farra”k eta “firri farra”k. Onomatopeiak, onomatopeia den aldetik, ez du “gal-gal” eta “tirriki-tarraka”ren arteko bereiztasunik onartzen.

Baina, hori bai, onomatopeia bitarteko linguistikoa ez bada ere, ahoskatu egiten denez, hitz berrien iturburu bilakutzen da. Onomatopeiaren bidez, milaka hitz sortu dira hizkuntzetan. Bi erataro gertatu izan da hori: zuzenean, onomatopeia bera hitz bihurtzen dela, esaterako, “pospolin”, “purra”, “zigzag” (gaztelera) eta zeharka edo, onomatopeiari atzizki eratorleren bat erantsiz, “danbada”, “zartako”, “zigzaguear” (gaztelera).

### Errima-bikoteak

Errima-bikoteek ez dute, nire ustez, onomatopeiekin zerikusirik. Errima-bikotea errekurtsu linguistikoa da, hitzez baliatzen delako, ez zarata hutsez, eta hitza errepikatuz ñabardura semantikoa ezartzen diolako hitzari.

Erkatu “hitz” eta “hitz eta pitz”; “inguru” eta “inguruminguru”; “zirri”, “zirri eta mirri” eta “zirri-mirri”. Kasu arruntenetan hitzaren lehen hotsa ezpainbikariez aldatuz, ezpainbikari sudurkariaz gehienbat, gertatu ohi da.

Hartzen duen ñabardura ez da erreza zehatz azaltzen, orokor xamarra bait da, baina badu horrelako erdeinu kutsuren bat: “aitzaki-maitzaki”, “elur-melur”, “irri-mirri”, “nahas-mahas”, “tarteka-marteka”, “zeharka-meharka”.

Erdeinu-ñabardura hori ez da beti garbia, eta hitzak berak ere baldintzatzen du. Esaterako “zehatz-mehatz”en kutsua horrelakoa denik esaten ez nintzateke ausartuko, ez eta “duda-muda”, “tira-bira” edo “sirimiri”rena ere, baina nork uka dezake horrelako airea edo dutenik?

Errepikak indartu egiten du hitzaren esanahia, baina, bidenabar, ironia izpi bat erantsiz: “bildur-mildur”, “auzi-mauzi”, “iritzi-miritzi”, “isilka-misilka”, “saski-naski”, “nahaste-borraste”. Edozein modutan ere, ñabardura semantikoa ezartzen dio, ñabardura hori nolakoa den alde batera uzten badugu ere, eta erabili ere hortarako erabiltzen dela esan daiteke.

Errima bikoteetatik ere hitzak sor daitezkeenik ez dago dudarik. Bidea beti bera da, erabiliaren erabiliz, bere lehen funtzioaren indarra galdu ahala, bikotea esanahi bakarrez jantziz joaten da. Bikotea bera hitz eraketa horren lehen urratsa dela esan daiteke, hasieran “eta” kopulati-

boarekin egiten bait dira errimazko bikote hauek: “isilka eta misilka”, “jira eta bira”, “zehatz eta mehatz”, eta beharbada baita beste era batzutarata ere. Errekurtso hau, izan ere, oso lotua agertzen da hizkuntza mintzatuarekin. Oso esate adierazgarriak gertatzen dira elkarriketa biziaren eraginez: “Zer bildur eta zer mildur!”, “Han zebilen jira eta bira”, “Mutil hori, kokolo-mokolo galanta!”

Erabileraren eraginez, adierazgarritasun hori galduz joaten da, eta bikotea esanahi bakar batez jazten joan daiteke, hitz arrunt bihurtuz, hala nola “sirimiri”, “jirabira”, “handi-mandi”, “tirabira”, “txutxu-putxu”, “nahaste-borraste”.

### **Idazkera**

Errekurtso hauek, onomatopeia eta errima-bikotea, alegia, ez dira berez hitzak sortzeko bideak. Hauen helburua beste bat da, eta ez da erreza mugatzen noiz galdu duten beren lehenbiziko balioa edo helburua, eta noiz bihurtu diren hitz onartuak. Bilakabide honetan etapa guztiak aurki daitezke, oraintxe bertan asmatu eta erabil daitekeen onomatopeia edo errima-bikotea, eta “marmar”, “diridir”, “sirimiri”, “jirabira” edo “nahaste-borraste”, hitz onartuak direnak, eta ez onomatopeia edo errima-bikote hutsak.

Agertzen duten arazo nagusia, nire iritziz, beren idazkerarena da. Hitz bihurtzen direnean, edo hitz bihurtuko balira, hitz konposatuen trataera bera eman beharko litzaieke. Baina hemen arazoa besterik da, onomatopeia errepikatuak eta errima-bikoteak beren erabilera arruntean nola idatzi.

Horretarako bere betekizuna hartu behar da, kontutan: erreferentea irudikatzea, onomatopeiaren kasuan; eta adierazgarritasuna, errima - bikoteenean. Betebehar horiek ongi aditzera emateko marrattoa, gidoia, har daiteke arau nagusi eta orokor bezela.

Puntu honetan ez da betere adostasunik hizkuntza ezberdinetan, ez eta hiztegi eta autoreetan ere, autore berak edozein erataria idazten dituela: errepika bereiziz, gidoiarekin edo hitz bat balitz bezela. Arras nabaria da irizpide falta.

Halaz ere, nik uste dut marrattoz idazteak hobeto eta artezago agertzen duela idazketa bereziak baino onomatopeien nahiz errima-bikoteen eginkizuna.

Bi hitzetan idatziz, errekurtso horien funtzio bakarraren indarra ahuldu egiten da, eta ahultzen ez bada ere, bitasun hori eginkizun bakarrarekin ez dator ongi.

Hitz bakar bezela idazteak ere baditu, ordea, bere eragozpenak. Zergatik? Hitzaren ezaugarriak ezartzen dizkielako, eta bereziki azentu bakar-rerako joera. Azentu bakarra ez dator oso ongi ez onomatopeiaren betekizun irudikatzaileaz, ez eta errima bikoteak hizkuntza mintzatuan hartzen duen indar espresiboaz ere. Azentuek errepikari beren indarra ezartzen die, eta hortik dator errepika hutsean, bikoitzean, alegia, bi azentuetatik bat galduz joaten dela, hasierako helburua utziz hitz bihurtzen diren heinean.

“Plisti-plasta” edo “zipli-zapla jo zuen mutikoa” esaldian bi azentuak garbi gordetzen dira. “Han zipli-zapla ugari izan zen” azentu bateko bidean dago, bi ahoskerak onartzen baditu ere, eta hitz bakarraren balioa hartzeko bidean ere bai. “Han zaplateko ugari izan zen” esaldiaren antz osokoa da.

Onomatopeiak, bestalde, errepika hirukoitz eta laukoitzak ere bikain onartzen ditu: “pil-pil-pil-pil”, “pin-pan-pun”, “barra-barra-barra”, “tiriki-tiki-tauki”. Horrelako errepikak hitz batez idaztea ez da posible, eta guztiz bereziak ere ez leudeke ongi: marrattoa, gidoia, ezinbestekoa da.

Labur esanda, onomatopeia errepikatuak eta errima-bikoteak beti gidoiaz idaztea, horixe izango litzateke niri aski garbi ageri zaidan irizpidea.

Zer egin hitz bihurtu direnekin? Edo beste era batera esanda, nola idatzi “kili-kili” edo “kilikili”?, “ttun-ttun” edo “ttuntun”?, “zurru-murru” edo “zurrumurru”?

Honetarako, elkartuentzat onartzen den irizpidea izango litzateke zuzenena. Behin azentu bat galduz gero eta morfemak onartzen ditue-nean eta zentzu bakar bat hartuz gero, ez legoke batere eragozpenik hitz konposatu bezela hartzeko. Eta egunen batean elkartuentzat araurik ezartzen bada eta jokabiderik gomendatzen, hura bera onartu hauentzat ere.